

Errugbia, guztien kirola

Hernanik eta Universitario de Bilbaok Michelin kirol gunean jokatu dute Bultza Ligako partidetako bat / 12

TXINTXARRI

Mozorroz eta kolorez jantzita

Inauteria ospatuko du Lasarte-Oriak asteburuan. Adin eta gustu guztientzako jarduerak izango dira igandera arte / 8-9

Urratsez Urrats
proiektu pilotuaren
emaitzak aurkeztu
dituzte **Biyak Bat**
adinekoen egoitzan / 2

Kultur ikastaroen
aurkezpena egin du
udalak asteen.
Horietan izena ematea
zabalik dago / 4

Itsaspeko zinema
zikloari herritarrek
egin dioten
harrerarekin "pozik"
dago zuzendaria / 5

Sanpedroak
prestatzen hasteko,
herritarren
proposamenak bildu
nahi ditu udalak / 7

Lasarte-Oriako atletak
dominak lortu dituzte
Espainiako zein
Gipuzkoako
txapelketetan / 10

Buruntzaldea IKTKo
infantilak ederki
lehiatu dira Euskal
Herriko Neguko
txapelketan / 13



ELECTRICIDAD
ARREGUI


600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Etixerako LED PLAFOI argiak


Diseinu berritzaileena | Argi eta intentsitate erregulatzailerekin



Txikiak



Handiak



Zatoz
ikustera
diseinu berriak!

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Adinekoak martxan jartzeko, urratsez urrats

'Urratsez Urrats. Pandemiaren ondoren bideari ekiten' proiektu pilotuaren emaitzak aurkeztu dituzte Biyak Bat egoitzan. Parte hartu duten herritarrek pozez jaso dute euren ekarpenekin osatutako eskuorria, eta esperientzia ongi baloratu

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako jubilatutako eta pentsionisten elkarteak (Agijupens) aurrera eramandako proiektu pilotuaren emaitzak ezagutarazi zituzten hilaren 18an Biyak Bat egoitzan. Parte hartu duten herritar gehienak izan ziren aurkezpenean eta pozez jaso zuten euren ekarpenekin osatutako eskuorria.

Bi urte zailen ondoren sortutako beldurrak uxatu eta adinekoak berriz ere martxan jartzea xede du *Urratsez Urrats. Pandemiaren ondoren bideari ekiten* egitasmoak. Programa pilotu bat da, Lasarte-Orian jada gauzatu dute eta beste bi lekutan ere burutzekoak dira, zehazki, Donostiako Parte Zaharreko Kaialde eta Bidebietako Guardaplata egoitzetan.

Dinamizazioaz arduratu diren bi lagunek emaitzak aurkeztu aurretik, Agijupens elkarteko lehendakari Jose Agustin Arrietak hartu du hitza.



Urratsez Urrats proiektu pilotuari buruzko hitzaldiko une bat. TXINTXARRI

"Zoriontsu izateko gakoak besteak zoriontsu egitea da. Ondo sentitzea, familia sentitzea. Hori da garrantzitsuena". Pasatako garai zailen ondoren, aurrera egiteko hiru gauza kontuan hartu behar direla uste du: biziberritzea, berriz martxan jartzea; birpentsatzea nola izan behar duten egoitza berriek, eta

dibertsitatea, komuneko irizpideak izatea.

Herrian sei saio egin dituzte. Hirutan emozioez aritu ziren haiek identifikatzen eta adierazten ikasteko eta asertibitatea ere landuz; beste hiruetan, aldiz, arlo sozialera pasatu ziren. Lasarte-Oria hobe ezagutu eta elkar ezagutzeko parada izan dute.

Bertan hitz egindakoetan oinarrituta, herriko jubilatuentzat baliagarria den infografia bat osatu dute, haien hitzetan, kalean barrena lasai ibili ahal izateko aukerak jasotzen dituen. Programan 65 eta 83 urte arteko 33 lagunek parte hartu dute, ia denak, 30, emakumezkoak. Eskuorria A3 tamainako orrietan banatu diete. A4 tamainan egoitzan eskuragarri izango da.

Ebaluazioetan oso gustura egon direla adierazi dute, eta halako tailerrak berriro egiteko gogoia dutela. Iruzkinen artean, "emozioak

onak edo txarrak ez direla ulertzen", "beste iritzi eta emozio batzuk ulertzeko moduak baloratzen" edo "konfort gunetik irteten" lagundu diela adierazi diete. Amaitzeko, Lourdes Acevedo alkateordeak hitz egin du. Halako egitasmoen eta Biyak Baten garrantzia nabarmendu du eta dirua mugatua dela gogoratu arren, adineko pertsonetako duen konpromisoa berretsi du. "Lasarte-Oria adineko pertsona asko ditu eta ezin ditugu ahaztu. Leku bat izan behar dute eta kontuan izan behar ditugu".



Zuzendaritza batzordeko kideak, bazkideei azalpenak ematen. TXINTXARRI

Urteko batzarra egin dute

Biyak Batek urteko batzarra egin zuen otsailaren 19an, larunbatez, egoitzan bertan. Balantze ekonomikoa eta beste gai batzuk jorratu zituzten bileran. Bazkide ugari bertaratu ziren.

Usurbilgo Lanbide Eskolak ate irekien jardunaldia egingo du

Martxoaren 9an joan ahalko dute ikasleek zentrorra, Erdi zein Goi Mailako zikloen artean aukeratzera

Txintxarri

Aurrematricula ekainean egin ohi badute ere, DBH zein Batxilergoa egiten ari diren ikasleak hasiak dira etorkizunean zer egin nahi duten pentsatzen, eta horregatik, ate irekien jardunaldia antolatu du Usurbilgo Lanbide Eskolak (ULE) martxoaren 9an, arratsaldean. Zentroaren webgunean izena eman behar dute parte hartu nahi dutenek. Bestalde, aurreratu du aurreko praktikak egin ahalko dituztela estudianteez atzerrian, Erasmus proiektuaren barruan.



Usurbilgo Lanbide Eskola, airetik. ULE

Batetik, Erdi Mailako zikloak egin ditzakete: Administrazio Kudeaketa, Instalazio Elektriko eta Automatikoak, Hozteko eta Beroa Sortzeko Instalazioak edota Mekanizazioa. Bestetik, Goi Mailakoak: Administrazioa eta Finantzak, Automatizazio eta Robotika Industrialak, Fabrikazio Mekanikoko Produktuen Programazioa, Fluido Instalakuntzen eta Instalazio Termikoen Mantenua, Energia Eraginkortasuna zein Eguzki Energia Termikoa eta Energia Berriztagarriak.

Bestalde, ULEk gogorarazi du martxan dagoela STEAM prestakuntza osagarria. Zikloez gain, ikasleek sei orduko indartze eskolak jaso ditzakete hainbat arlotan. Esate baterako, Fisika, Kimika, Gaztelania edo Robotika eta Programazioa.



EL DIARIO VASCO

Oria ibaitik erreskatatu dute

Hilaren 20an, goizeko zazpiak aldera, suhiltzaileek emakume bat atera behar izan zuten Oria ibaitik, Ola kale parean. Bertan bizi diren zenbait bizilagunek *El Diario Vasco* egunkariari kontaktu ziotenez, Ertzaintzako agenteengandik ihesi zebilen pertsona hori, eta bertan ezkutatzen saiatzea erabaki zuen, zuhaitz batera igota, korronteak eraman ez zezan.

Irati Martijak irabazi du Lasarte-Oriako saria

Buruntzaldeko sei udaletako Euskara sailtako buruek Gidabaimena Euskaraz egitasmoko sariak zozkatu dituzte, Andoainen. Programa horrek 2009tik darama martxan, eta adierazi dute hamabi urte horietan 1.192 pertsonak lortu dutela atal teorikoko azterketa gainditzea

Txintxarri

Irati Martijak irabazi du 400 euroko Lasarte-Oriako saria, 2021ean euskaraz egin zuelako gidabaimenaren atal teorikoa. Otsailaren 21ean egin zuten zozketa, Andoainen; eskualdeko Euskara sailtako buruek parte hartu zuten, baita Jon Antxordoki herritarrek ere. Orotara, bederatzi ikasle saritu dituzte: Hernaniko hiru, Andoaingo bi eta Astigarragako, Lasarte-Oriako, Urnietako eta Usurbilgo bana. Segun eta zenbat autoeskola dituen udalerrri bakoitzak, orduan eta saridun gehiago, azaldu dute arduradunek.

Eskualdeko udalek duela hamabi urte jarri zuten martxan Gidabaimena Euskaraz egitasmoa, eta Euskara sailtako buruek agerraldian nabarmendu zuten 1.192 ikaslek lortu dutela tarte horretan lizentzia horren atal teorikoa euskaraz egitea. Pandemiaren eraginagatik, 2020tik hona pertsona gutxiagok egin dute hautu hori, baina "pozik" daude arduradunak, programa egiten ari den bidearekin. "Ezinbestekoa da belaunaldi gazteei eskolaz kanpoko jarduera garrantzitsu bezain erakargarri hau euskaraz eskaintzea".



Eskualdeko Euskara sailtako buruak, Andoainen. NOAUA ALDIZKARIA

Norabide horretan, zehaztu dute aurtengo kanpaina maiatzean hasiko dela, eta, batez ere, 2022an 18 urte betetzen dituzten gazteei zuzenduta egongo dela. Esan bezala, egitasmoa balioan jarri zuten agerraldian, baina onartu zuten hainbat erronka dituela lortzeke: "terminologia bateratu bat" sortzea eta "kalitatezko azterketa ereduak" garatzea, besteak beste. Halaber, uste dute azterketa teorikoan egiten den lanak jarraipena izan behar duela atal praktikoan.

2021eko saridunak

- **Andoain:** Arixen Carrero eta Aimar Murua.
- **Astigarraga:** Aimar Lizarribar.
- **Hernani:** Itxaso Aizpurua, Uraitz Berrostaran eta Oier Aranburu.
- **Lasarte-Oria:** Irati Martija.
- **Urnietako:** Maite Jauregi.
- **Usurbil:** Alaitz Olasagasti.



NEURE KABUZ
ASIER ODRIUZOLA

Inauteriak

Apal-apal baina oihuka dezagun garai bateko bizimoduaren antzekoa bueltan dela. Maiz entzun diogu aditu bati baino gehiagori ez genuela berriz ere sasoi bateko normaltasunik bizi ahal izango, nabarmen hankaz gora jarriko zitzaigula harremanak, jaiak, lana, bizitza azken batean, ospatzeko modua. Errezeloa daukat ordea horren kontrako dela gure joera. Nahiz garai batean, beharbada, ondo bizi ginela onartu ez, pandemian iragan dugun tunel beltz eta luzearen ondotik, hura, lehengoa, berreskuratu nahi dugu. Eta berreskuratu nahiak, indar horrek, bestelako zuhurtziak baino sendotasun handiagoa duela dirudi. Inauteriak izango dira horren neurgailu gure herrian. Lasarteko kaleak jendez beteta ikusteko gogoia dut, saltoka-saltoka, honetaz eta hartaz moztortuta, berdin apaizez, guardia zibilez, Hitlerrez edo indioz eta bakeroz, nahiz Estatu Batuetako mendebaldean "zuriek" egin zuten triskantza kondenatu.

Hori dute inauteriek: urtean behin, gertaerarik latzeneri edo pertsonaia iluneneri barre egiten zaiela eta horrek ez duela esan nahi, zein den gure posizionamendu sozial edo politikoa. Inauterietan ere geure burua mugatzen badugu, akabo! Horretan zaleak diren agintari batzuren lana egingo du gutako bakoitzak. Francok eta beste askok hala egin zuten. Jarraitu dezagun mugarik gabe moztortzen, irudimena estukeria bakar delarik. Kalean ikusiko gara, nahiz agian elkar ezagutu ez. Ondo pasa!

Martxoaren 8ko kartel lehiaketan parte hartzeko azken egunak

Datorren urteko Martxoaren 8ko egitaraua iragartzeko afixa aukeratzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak lanak aurkezteko epea ireki du eta otsailaren 28an itxiko du, hilabeteko azken egunean. 12 eta 17 urte arteko herritarrek parte har dezakete, eta goiburu hau eraman beharko dute kartelek: *Martxoak 8 de marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres*. Hilabete amaiera bitarte jasotako kartel guztiak Emakumeen

Zentroan jarriko ditu ikusgai udalak, martxoaren 1etik 7ra. Lasarteoriatarrek hara joan beharko dute, eta bozka eman. "Herritarren iritziak kontuan izango ditugu bigarren eta hirugarren sariak erabakitzerakoan". Lehen saria nork irabaziko duen, berriz, epaimahai batek deliberatuko du: Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak eta gaian adituak diren teknikariek osatuko dute batzorde hori.

Irabazleak 120 euro jasoko ditu; bigarrenak, 90; eta hirugarrenak, 60.

**PLASTIKA
ANTZERKIA
DANTZA**

...
Izena emateko:
aisia@ttakun.eus
Tel: 695 78 53 92 (whatsappez)

ARTISTA BAT NAIZ NI!

HH5-LH1-LH2koentzat (2014, 2015 eta 2016. urteetan jaioak)

MARTXOAK 9, 16, 23 ETA 30 (ASTEAZKENETAN)
MARTXOAK 10, 17, 24 ETA 31 (OSTEGUNETAN)
17:30 ETIK 19:00 ETARA

10€ TTAKUNEN BAZKIDEAK
13 € EZ BAZKIDEAK

Kultura ikastaroak aurkeztu ditu udalak

Izen ematea zabalik dagoela jakinarazi dute udal ordezkariak; martxoaren 2ra arte izango da horretarako aukera. Eskuorriak banatzen ari dira, etxez etxe eta horien bitartez edo sarean egin ahal izango dute interesatuen ikastaroetan inskripzioa

Txintxarri

Kultura ikastaroak aurkeztu ditu Lasarte-Oriako Udalak astelehen goizean; herritarrei aisialdirako aukera ludiko-hezitzailea eskaintzeko helburuz antolatu dituzte. Lasarte-Oriako gizarte bizitzan parte hartzea sustatu nahi du udalak, eskulan, arte, jolas eta bestelako zenbait jardueren bitartez. Hamasei urtetik gorako lasarteoriatarrei zuzenduta daude ikastaroak, eta interesa dutenek dagoeneko egin dezakete inskripzioa. Horretarako lau bide dituzte. Aurrez aurre egin nahi duenak, Manuel Lekuona kultur etxera joan beharko du (10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara). Telefonoz ere eman daiteke izena, honako zenbakira deituta: 943- 37 61 81. Iaz jarri zuten online izena emateko aukera lehen aldiz, eta aurrez aurre horri eustea erabaki dute. Hau da sarean izena emateko helbidea: www.lasarte-oria.eus. Azkenik, etxez etxe banatzen ari diren eskuorriak agertzen den QR kodea eskaneatuta ere egin daiteke.

Martxoaren 7an hasiko da lehen ikastaroa eta hortik

aurrera gainerako guztiak. Denak izango dira ekainera arte, ZurlanketanSS ezik; abendura arteko iraupena izango du. Udal ordezkariak azaldu dute lekuak mugatuak direla, eta, hortaz, leku kopurua baino izen emate gehiago batzen dituen ikastaroen kasuan, zozka

bidez esleituko direla plazak. Argitu dute, kasu horretan lehentasuna izango dutela ikastaro bakarrean izena eman dutenek. Hala, ikastaroak aurrera ateratzeko gutxieneko pertsona kopuru batek eman beharko du izena.



Udal ordezkariak, prentsaurrean, kultura ikastaroen berri ematen. TXINTXARRI

Kultura ikastaro eskaintza

Helduak	Eguna	Orduetgia	Prezioa erroldatuak	Prezioa ez erroldatua	Datak
Areto dantza	ostirala	11:00-12:00	28,54 euro	47,53 euro	03/11-06/17
Argazkigintza tailerra (hastapena)	osteguna	19:00-20:30	38,03 euro	63,38 euro	03/10-06/16
Estimulazio kognitiboa	asteartea	18:30-20:00	50,66 euro	84,43 euro	03/08-06/14
Gorputz jarrera heziketa	ostirala	19:15-20:45	22,82 euro	38,03 euro	03/11-06/17
Ilaran dantza	osteguna	18:00-19:00	28,52 euro	47,53 euro	03/10-06/16
Joskintza eta arropa	asteazkena	10:00-12:00	50,70 euro	84,50 euro	03/09-06/16
Sendabelarrak	osteguna	17:00-18:30	43,03 euro	71,71 euro	03/10-06/16
Meditazioa	asteazkena	19:00-20:30	47,53 euro	79,22 euro	03/09-06/16
Patchwork	asteartea	19:00-20:30	50,70 euro	84,50 euro	03/08-06/14
Sabel dantza	osteguna	19:45-21:15	28,52 euro	47,53 euro	03/10-06/16
Zurlanketa	astelehena	17:30-20:30	146,25 euro	243,75 euro	03/07-12/19

TrukeLandian parte hartuko dute GurasoLandiako gurasoek

Hilabete behin, modu autonomoan hiru familia elkartzeko eta ezagutzak trukatzeko aukera eskaintzen du

Txintxarri

GurasoLandia egitasmoan dabilzan familiak TrukeLandia izeneko aurkezpen ekitaldira gonbidatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak. Datorren asteartean, martxoaren lehen egina da saio hori, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, 18:30etik aurrera. Egitarauari buruzko

zertzelada batzuk eman dituzte antolatzaileek: talde bakoitzak koreografia eta abesti bana taularatuko ditu, iaz TrukeLandian parte hartu zutenetako batzuek haien esperientzia kontatuko dute, eta Porrotx pailazoak dinamizatuko du ekitaldia.

Izenak berak adierazten duenez, trukean oinarritutako jarduerak

da TrukeLandia. Hilabete behin, modu autonomoan hiru familia elkartu, eta bakoitzak ezagutzak bat partekatuko du besteekin. Elkar irakatsiko duten hori askotarikoa izan daiteke: errezeta, esperientzia, abesti jolasa, ipuina, eta abar.

Bertaratzeko, gonbidapenak

Ekimenerako gonbidapenak aisia@ttakun.eus edo 695 78 53 92 whatsapp zenbakian eskatu behar dituzte, eta Ttakun KEren bulegoan jaso 12:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 17:00etara. Soberan geratutakoak egunean bertan eskuratu ahalko dira.

Badator UdalTop

Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak badu data. Maiatzaren 12an eta 13an egingo da hamalaugarren edizioa, eta pandemiak asmoak zarpuzten ez baditu, Lasarte-Oriako Kultur Etxera itzuliko da. 16 urte bitarteko haur eta gazteen artean jarriko du fokua 2022an. Hain zuzen, 16 urte bitartekoentzat hizkuntza politika egokiak antolatzeko jarraibideak ematea izango da egitasmoaren helburua aurten.





Herriko hiru ikastetxeetatik 190 bat ikaslek parte hartu dute aurtengo Txikizikloan. CIMASUB

Urtetik urtera, "gero eta erantzun hobea"

"Oso pozik" dago CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloaren zuzendari David Sanchez Carretero. Lasarteoriatarrek "primeran" erantzun dute, eta "izugarri" gozatu dute kultur etxeko proiektioez: "Balorazio oso onak entzun ditut; bete egiten nau horrek"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Elkarrizketa telefono bidezkoa izan bada ere, nabarmena da pasioz hitz egiten duela David Sanchez Carretero herritarrek, CIMASUB Itsaspeko Zinema Zikloko zuzendari eta Real Sociedad taldeko Urpekaritza saileko kideak. Hamalau garren aldiz, itsaso azpian dauden gauza

ederrak eta ederrak ez direnak erakusteko ariketa egin du, Lasarte-Oriako Udalarekin eta Danok Kide elkartearekin batera: argazki erakusketa batez eta hiru zinema proiektioz gozatu dute herritarrek otsailaren zehar. Zuzendariaren hitzetan, urtetik urtera (hamalau ziklo egin dituzte) "gero eta hobea" da ikus-entzuleen

erantzuna. "Hutsik egiten ez dutenez gain, publikoan jende berri gero eta gehiago ikusten dugu, familia gero eta gehiago haurrekin... Oso-oso pozik gaude, gure helburua baita herritarrek ezagutzea planeta honetako itsasoan errealtatea zein den. Lasarte-Oriara egitasmo hau ekartzea gozamen hutsa da".

Lasarte-Oriako Udalaren eta Danok Kide elkartearen laguntza eskertu du Sanchez Carretero: "Oso erraza da haiekin lan egitea, zikloari arreta asko jartzen diote, prentsaurrekoak egiten ditugu ekimena aurkezteko eta ikusgarritasuna emateko... Eskerrak eman nahi dizkiet CIMASUBen eta Realaren izenean". Bidean, herritarrek aurreratu du antolatzaileak hasi direla honezkeroko hamabosgarren aldiko datei buruz hitz egiten. "Asko balio du lasai lan egiteak; ia urtebete falta denean, badakigu 2023an ere ekarriko dugula itsaspeko zinema zikloa herrira".

Txikizikloan, 190 ikasle


Esan bezala, CIMASUBen xede nagusia da kontzientzia sortzea herritarrengan, eta erakustea "berebizikoa" dela itsasoak garbi mantentzea, edo hobe esanda, gehiago ez kutsatzea. "Ez dugu B planik, hau da gure planeta eta zaindu egin behar dugu, baita itsasoak ere, ikaragarri kutsatuta baitaude". Norabide horretan, "funtsezkoa" iruditzen zaio Sanchez Carreterori belaunaldi gazteak hezte. Horregatik, Txikizikloa da adar garrantzitsuenetako bat: herriko hiru ikastetxeko ikasleei unitate didaktiko bat bidaltzen diete antolatzaileek, gaia ikasgelan jorra dezaten, eta gero, emanaldi berezi bat antolatzen dute kultur etxean. "Gaztetxoek sekulako interesa erakutsi dute: saioa

ordubeteko izatea aurreikusitua genuen, baina ordu erdi luzeagoa izan zen, galdera pila bat egin zituztelako". Iaz, pandemia tarteko, hiru pase egin behar izan zituzten, baina aurtengo "normaltasunez" antolatu dute dena, eta 190 ikasle joan dira auditoriora.

Haur, nerabe zein heldu, adin tarte guztientzako jardura dela nabarmendu du zuzendariak, eta anekdota bat kontatu: "Iaz, zikloa egin genuenean, tabernak itxita zeuden koronabirusagatik, eta inoiz baino ikus-entzule gehiago bertaratu ziren kultur etxera. Bada, emanaldiak bukatu eta gero, batek baino gehiagok esan zidan: 'Nolatan ez dut honen berri izan orain arte? Zoragarria da'. Agian hori gertatu zen beste planik ez zutelako izan herritarrek, baina azpimarratu nahi dut merezi duela etortzeak, ekimen oso interesgarria delako; oraindik honen berri ez duten herritar guztiak gonbidatzen ditut 2023an parte hartzerako".

Bestalde, emanaldiak bukatu diren arren, kultur etxeko 1. solairuko argazki erakusketa zabalik dago oraindik: azken eguna otsailaren 25a da.

DATORREN URTEAN ERE ZIKLOA OTSAILEAN EGINGO DUTELA AURRERATU DU ZUZENDARIAK



TXINTXARRI

Intzidentzia tasak jaisten jarraitzen du

Otsailaren 23ra arteko datu epidemiologikoak eskuetan, koronabirusaren eragina gero eta apalagoa da Lasarte-Orian. 21etik 23ra hamalau kutsatze atzeman dituzte, eta hilabete osoan, 307. Intzidentzia tasa metatua gero eta baxuagoa da: 551,33 kasu 100.000 biztanleko. 2020ko

marxotik hona, 6.703 positibo diagnostikatu dituzte gure herrian. Intzidentzia gehieneko hilabetea, orain arte behintzat, aurtengo urtarrila izan da: 2.120 kutsatze zenbatu zituzten. Eskualdeko gainerako udalerrietan ere gero eta arinagoa da COVID-19aren eragina.

Geltoki kaleko lanak adjudikatu ditu udalak, 237.995 eurotan

Asfaltados y Construcciones Morga enpresa arduratuko da bertako saneamendua eta irisgarritasuna hobetzeaz

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du lanak egingo dituela Geltoki kalean, bertako saneamendua eta irisgarritasuna hobetzeko. Asfaltados y Construcciones Morga enpresari adjudikatu dizkio, 237.995 eurotan. Labur esanda, hauxe egingo du: ur hornidurarako kanalizazioa ordezkatu, eta zoladura aldatu. Ez du zehaztu obrak noiz hasiko diren eta zenbat iraungo duten.

Kanalizazio berria burdinurtu modularreko izango dela zehaztu du udalak: Geltoki eta Iñigo de

Loiola kaleen arteko bidegurutzean lotuko da sare orokorrera. Gainera, kendu egingo dute zuntz zementuzko hodian artea.

Bestalde, 2017ko Irisgarritasun Planen finkatutako helburuak betetze aldera, arlo hori hobetu nahi du obren bidez. Hauek dira norabide horretan egingo dituzten moldaketa batzuk: ibilgailuen abiadura moteltzeko zoladurak berri; kultur etxe pareko oinezkoen pasabidea aldatu; Geltoki kaleko 12 eta 14 zenbakien artean pasabide bat egin; eta gune horretako espaloia zabaldu.

Ezkutatutako oroitzapenak argitzen

'Tarara' antzeulanaren euskarazko egokitzearen emanaldia egin du Hika Teatroak, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Biolin eta piano doinuek lagundutako kontaketak, Rosaren iragana eta oraina lotzen ditu. Gogotik gozatu dute ikus-entzuleek

Txintxarri

Bilboko San Francisco kalean bizi da Rosa 1970eko hamarkadan. 9 urte betetzean, biolin bat oparitutako dio amak eta egun horretan bertan Lizt konpositorea ezagutuko du, aspaldi hilik badago ere. Biolinista ospetsua izatea du amets eta konpositore handiekin hitz egiteko gaitasuna du. Hamarkada batzuk geroago, Rosak ama bisitatuko du zahar etxean. Harengana joko du gogoratzen ez dituen oroitzapenak argitzeko beharra duelako. Protagonista bi aktorek antzezten dute, heldua eta haurra, biak, ordea, elkarren ondoan daude maiz eszenarioan, banatutako pertsonaia baita.

Eszenaz eszena, denboran jauzi egiten du kontaketak, auzoan bizitakoa eta amari egindako bisiten artean. Iragana gogoratzeko ahaleginean eta ama-alaben arteko harremanean garrantzia berezia du Tararak.

Prostituzioan eta gaueko ikuskizunean aritzen da, eta haurtzaroan ezagutuko du Rosak, auzoan. Tarara gizon jaiotako emakumea da, Yasmine izena eman diona bere buruari eta inguruan duena ulertzen lagunduko dio protagonistari. Josi Alvaradok idatzi eta Arantxa Iturbek euskaratu du antzeulanak haurrei egindako abusuak, tratu txarrak, desberdintasuna eta barkamena lantzen ditu.

Martxoan datozenak

Lasarte-Oriako Udalak ez du martxoko kultur agenda zehatz-mehatz iragarri oraindik, baina aurreratu ditu zenbait jarduera.

HAURREI EGINDAKO ABUSUAK, TRATU TXARRAK ETA BARKAMENA LANTZEN DITU ANTZEZLANAK

Hilabeteko lehen egunean, esate baterako, *Ni naiz Idoia* izeneko argazki erakusketa irekiko du Antonio Mercero gunean, martxoaren 18ra arte. Inaugurazio ekitaldia 18:00etan hasiko da.

Bestalde, asteburu horretako protagonista nagusia musika izango da, ezbairik gabe. X. Musika Astea antolatu du udalak, eta hiru kontzertu programatu: Sinfonica Turrillasena martxoaren 4an, Idoia Asurmendirena 5ean, eta Iñaki Salvadorrena 6an. Emanaldi guztiak kultur etxeko auditorioan izango dira, 20:00etan. Sarrerek 6 euro balio dute.

Horiek ez dira izango asteburu horretako kontzertu bakarrak, izan ere, Jalgi Kafe Antzokiak iragarri du urteko lehen emanaldia antolatu duela 5erako. Patxuko Nice taldea igoko da tabernako oholtzara, 22:30etatik aurrera.



'Tarara' izan da otsaileko kultur agendako azken antzezlana. TXINTXARRI



Eszenografia ikusgarria ekarri zuen Hika Teatroak kultur etxera. TXINTXARRI

Inauteriei ongietorria

Iritsi dira Inauteriak Lasarte-Oriara. Udal Musika Eskolako ikasleak arduratu dira ospakizun giroari ongietorria egiteaz: kontzertu bufoa egin zuten otsailaren 24an, kultur etxeko auditorioan. Mozorro koloretsuak soinean, azken hilabeteetan ikasitako piezak partekatu zituzten ikus-entzuleekin, eta merezitako txalo zaparradak jaso zituzten ordainetan.





Lasarte-Oriako Udalak herritarren proposamenak bildu nahi ditu San Pedro Jaiak diseinatzeko. TXINTXARRI

Sanpedroak prestatzen hasi nahi du udalak

Prozesu parte hartzailea abiatuko du Lasarte-Oriako Udalak herritarrek San Pedro Jaietarako proposamenak egin ditzaten; martxoaren 13ra arte izango dute horretarako aukera. Musika taldeak eta bestelako jarduerak iradoki ahal izango dituzte

Txintxarri

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko dira aurten San Pedro Jaiak, eta horiek prestatzeko herritarren iritzia kontuan hartu nahi du udalak. Horretarako, prozesu parte hartzaile bat jarriko du martxan, eta lasarteoriatarrek euren proposamenak helarazi ahal izango dituzte.

Iritziak emateko bi bide izango dituzte herritarrek. Batetik, dagoeneko etxez etxe banatzen ari diren eskuorrien bidez. Horiek behar bezala bete eta parte hartze postontzietan utzita. Kultur etxean, Emakumeen Zentroan, kiroldegian, Gaztelekuan eta udaletxean dago bana. Bestalde, sarean egiteko aukera ere izango da. Horretarako, www.lasarte-oria.eus atarian sartu beharko dute interesatuek.

Hiru multzotan banatu dituzte egin daitezkeen proposamenak. Alde batetik euskal musika taldeak proposatu ahal izango dituzte; bestetik, nazio mailakoak; eta, hirugarrenik, musika taldeak ez diren bestelako jarduerak (antzerkiak, jokoak, eta abar).

Martxoaren 13ra arte izango dute aipatu prozesuan parte hartzeko aukera.

Omendua eta kartela

Parte hartze prozesuaren berri emateko prentsaurrekoa baliatu dute, gogorarazteko urtero gisa, aurten ere San Pedro Jaietan omendua izango dela, eta hori aukeratzeko prozesua ere martxan jarriko dutela aurrerago. Horrekin batera, festak iragartzeko kartelaren lehiaketak ere ez du hutsik egingo aurten.

Bi urte festarik gabe

Lasarteoriatarrek ziur gogoz itxarongo dituztela aurtengo herriko festak. COVID-19ak eragindako pandemia medio, Lasarte-Oriako Udalak bertan behera utzi behar izan zituen 2020ko eta 2021eko sanpedroak, horiek "normaltasunez ospatzeko modurik" ez zegoelako. Gaur-gaurkoz, badirudi jaiak ohi bezala ospatzeko aukera izango dugula aurten; prestaketa lanak hasi dira behintzat.

Mendebaldeko Sahararik Andaluziara, asteburuan

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 46. urteurrena eta Andaluziaren Eguna ospatuko ditu Lasarte-Oriak otsail amaieran. Eragileek hainbat jarduera prestatu dituzte, eta herritarrak gonbidatu dituzte horietan parte hartzera

Txintxarri

Otsaileko azken asteburua inauteriek blaituko dute, baina ez dute Lasarte-Oriako agenda oso-osorik hartuko. Alde batetik, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak (SELO) ekintza batzuk antolatu ditu, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 46. urteurrena (hilaren 27an izango da) ospatzeko aldera, eta bertan bizi direnei elkartasuna adierazteko helburuz. Lehenengoa 24an egin zuten: hitzaldia eman zuen Ali Salem Iselmu idazle eta kazetariak, Antonio Mercero gunean, TXINTXARRI edizioa ixten ari zen bitartean. Kronika martxoaren 4ko zenbakian irakurri ahal

duzue. Beste bi ekimenak hauek dira: 25ean, 18:30ean, autokarabana solidarioa aterako da Hipodromoko aparkalekutik, eta 27an, 12:00etan, elkarretaratzera deitu du SELOk, Okendo plazan.

Andaluziaren Eguna

Aldarrikatzeko baino, giro ederrean ospatzeko antolatu ditu Andaluziaren Egunaren bueltako jarduerak Semblante Andaluz elkarteak. Otsailaren 28an egingo diote aintzatespena kide askoren jatorrizko lurraldeari, baina ekitaldi gehienak bezperan egingo dituzte, 27an. Hauek dira: 11:00etan, meza Arantzazuko

Ama parrokian, Semblante Rociero koroak girotuta; 14:30ean, bazkideen arteko bazkaria, Semblante Andaluzen egoitzan; eta 17:30ean, flamenko kontzertua, Katak taldearen eskutik, egoitzan bertan.

Bukatzeko, Andaluziaren egun handian, 28an, ohorezko ardoarekin topa egingo dute elkarte kideek eta udal ordezkariak, Semblante Andaluzen egoitzan, 20:00etan. Horrekin batera, luntxa egingo dute, eta zuzendaritza talde berriak agintaldia bukatu duenaren lekuko hartuko du. Juan Navarro izango da lehendakari berria, Jose Mari Melladoren ordeaz.



Mendebaldeko Sahararen aldeko elkarretaratzea hilaren 27an izango da. TXINTXARRI



Bazkideen arteko bazkaria egingo dute Semblante Andaluzen egoitzan. TXINTXARRI



Ezkerrean, Txus Alonso Jaiak eta Gazteria saileko batzordeburua, eta eskuinean, Agustin Valdivia alkatea, konpartsetako eta Ttakuneko ordezkariak atzean dituztela. TXINTXARRI

Txintxarri

Lehertzeaz da Inauteria Lasarte-Orian. Azken asteetan herriko konpartsekin zein eragileekin bildu dira udal ordezkariak, eta Inauteria ospatu ahal izateko alternatibak bilatzen aritu ostean, prestatu dute behin betiko egitaraua.

Adin eta gustu guztiei zuzendutako jarduerak izango dira. Hilaren 24an, osteguna, Udal Musika Eskolako musikarien kontzertu bufoaz gozatu ahal izango dute lasarteoriatarrek. 19:00etan izango da, kultur etxean. Hurrengo egunean, otsailaren 25ean, Ttakun Kultur Elkarteak herriko haur eta gazteentzat prestatutako jarduerak izango dira. 18:00etatik 19:30era, Garaikoetxean LH3-4ko mailako gazteek Talent Show-ean parte hartzeko aukera izango dute. Saritxoak eta goxokiak banatuko dira, eta photocall-a ere izango da. Bertan ateratako argazkiak txintxarri.eus atarian jarriko dira ikusgai. LH 5-6. mailakoek ere jarduera bera prestatu dute, baina Gaztelekuan. 18:00etatik 19:30era izango da. DBHko nerabeentzat ere izango da eskaintza hori, baina beste ordutegi batean: 19:00etatik 21:00etara. Azken hauek, gainera, *Epaileen bila* egingo dute.

Horietan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Horretarako honako telefono zenbakietara edo emailletara idatz dezakete: HH eta LHkoek 695 78 53 92 eta aisia@ttakun.eus

Mozorroak prest astebururako

Mozorroak jantzita irtengo dira lasarteoriatarrek kalera asteburuan. Ekimen ugari antolatu dituzte udalak, Ttakun Kultur Elkarteak eta konpartsek elkarlanean eta horien aurkezpena egin dute. Giro ederra izango da herrian, igandera bitarte

ttakun.eus eta DBHkoek, aldiz, 665 49 75 02 edo ktglasarteoria@ttakun.eus.

Otsailaren 26an, konpartsak

Eguerdian egingo dute jaialdia konpartsek kultur etxean. Hiruk parte hartuko dute aurten: Intzak parrandak, Jalgune elkarteak eta Sasoeta Sasoianek. Ordubeteko iraupena izango duela aurreikusitako dute antolatzaileek, eta aurreratu, Mikel Bermejo eta Julen Portillo umoregileak arduratuko direla emanaldia dinamizatzeaz.

LARUNBATEAN EGINGO DUTE KONPARTSEN ERAKUSTALDIA; HIRUK PARTE HARTUKO DUTE

Hori amaituta, 13:00etan Gautxori txaranga ibiliko da herrian barrena. Kultur etxetik abiatuko da eta 14:30ak arte girotuko dute kaxkoa. Bazkalostean berriz ere irtengo dira kalera, 17:00etatik 20:00etara.

Gauean, aldiz, dantzaldia izango da Andatza plazan. DJ bat arduratuko da musika jartzeaz, 22:00etatik 01:00etara.

Euskal Inauteria igandean

Euskal Inauteria izango da herrian otsailaren 27an, igandearekin. Goizez egin asmo dute ekitaldi nagusia, 11:30ak aldera, eta jende pilaketak saihestu eta segurtasuna bermatzeko hainbat herriko txokotan egingo dutela iragarri dute. Sagardotegi kaletik abiatu, eta handik Juan XXIII plazara joango dira; Isla plazara gero, eta, amaitzeko, Elizatze plazara.

Ordu laurden edo hoge minutuko kantu eta dantza emanaldiak egingo dituztela iragarri dute.

Herriko hainbat eragilek hartzen dute parte Euskal Inauterian, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. Bertan izango dira Plaza Dantzako kideak, Xumelako lagunak, Kukuka eskolako antzezle eta dantzariak eta Ttiriki Ttarrakako musikariak, besteak beste.

Lasarte-Orian Euskal Inauteririk ez da, txantxo jantzita ez bada. Horretarako, jantzia prestatzeko ikastarotxoan parte hartzeko aukera izango dute

EUSKAL INAUTERIAK GIROTUKO DU HERRIA IGANDEAN. GOIZEZ IZANGO DA EKITALDI NAGUSIA

herriarrek. Otsailaren 24an izango da, arratsaldean (17:30ean). Mirentxun elkartuko dira, eta haurrek zein helduek izango dute bertan parte hartzeko aukera. Izena ematea ezinbestekoa da eta horretarako, bi bide daude: 695 78 53 89 WhatsApp zenbakia edo kultura@ttakun.eus helbidea. Partaideek lastozko txanoak eta koloretako oihal zaharrak eraman behar dituzte.

Ttakun KE-ren ekimenek itxiko dute aurtengo Inauteri egitaraua. Oeste ginkana prestatu dute. HH 5 eta LH 1-2 mailakoek parte hartu ahal izango dute bertan, 11:00etatik 13:00etara. Arratsaldean, berriz, 5 eta 8 urte arteko haurrak dituzten sendientzat makillaje tailerra izango da; desfile eta guzti. Saritxoak ere banatuko dituzte.

Sorgin Jaien proposamena

Lasarte-Oriako Udalak Indioak eta bakeroak gaia onartu du aurtengo inauteriak ospatzeko, eta Sorgin Jaiak-en iritziz, "arrazista eta koloniala" da. Horren ordez, herritarrei proposatu die lanbidez moztortzeko otsailaren 26an.

Ikastetxeetan ere inauteri festak

Ikastetxeetako haurrek Inauteriak ospatuz emango diote ongietorria asteburuari. Eguraldi iragarpenari begira pasa dute astea, horrek baldintzatuko baititu Inauteri festako ordutegi eta lekuak.

Garaikoetxeako gaztetxoek, eguraldi onarekin 15:20ean irtengo dira patioa. Txarra egingo balu, ordea, bi txandatan banatuko direla jakinarazi dute ikastetxeordezkariak: HHkoak 15:20ean eta LH 1-2koak 15:45ean. Landaberriko ikasleek, aldiz, egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean hainbat jolas eta eskulanetan arituko dira, eta arratsaldean egingo dituzte emanaldiak. 15:10ean izango dira ikasleena; batzuek gimnasioan egingo dute eta beste batzuek anfiteatroan. Hori amaituta, 16:00etan, irakasleen erakustaldia izango da.

Sasoetako gaztetxoek ere Inauteriak ospatuko dituzte. Sasoetan 15:00etan hasiko dituzte emanaldiak, eta Zumaburun, berriz, 15:15ean. Eguerdia araberan patioan edo gimnasioan egingo dutela iragarri dute.



txintxarri

Bidali argazkiak:
www.txintxarri.eus / txintxarri@ttakun.eus
 646 82 44 66 Whatsapp zenbakira
 otsailaren 25a eta martxoaren 2a bitartean

SARIAK

**EPAIMAHAIK AUKERATUTAKO
 BI ARGAZKI ONENAK**

GOXOGI
 zure betiko denda

**ORE
 AMA**

50 euro dendan
 erabiltzeko

IRAKURLEEN BOZKATUENA

ERRIGORA otar eder bat


Txintxarri

Badirudi zomorroak (COVID-19ak) su eten moduko bat iragarri duela (ez dugu ozenezi esango, badaezpada ere), eta mozorrotuta ospatuko du hori Lasarte-Oriak otsaileko azken asteburuan: badatoz 2022ko Inauteriak! Ez dakizue zer nolako gooa genuen horrelako esaldi bat idazteko, eta emozioak eraginda, argazki lehiaketa antolatu dugu, zuen irudimena eta originaltasuna aitortze eta saritze aldera. Parte hartu nahi baduzue, irudiak www.txintxarri.eus webgunera edo txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora bidali beharko

Inauterietako lehiaketa antolatu du TXINTXARRI-K

Badatoz Inauteriak! Lasarteoriatarrek urtez urte erakutsi izan dute abilezia izugarria mozorro ikusgarriak prestatzeko, eta hori saritze aldera, lehiaketa prestatu du TXINTXARRI aldizkariak. Parte hartzeko, irudiek originalak izan behar dute, hau da, norberak ateratakoak

dituzue, otsailaren 25etik martxoaren 2ra, bi egunak barne. Bestela, WhatsApp bidez ere helarazi ahalko dizkiguzue, 646 82 44 66 telefono zenbakira mezu bat bidalita.

Sarietako bi TXINTXARRI-K osatutako adituen epaimahaiak erabakiko ditu: euren iritziz onenak diren bi argazkiek 50 euroko bonu bana irabaziko dute, Goxogi zein Ore Ama

okindegietan erabiltzeko. Bestalde, gure irakurleek gehien bozkatzen duten irudiaren egileak Errigorako produktuez betetako otar eder bat eramango du etxera. Animatu eta parte hartu!

Esan bezala, otsailaren 25etik martxoaren 2ra artekoa izango da parte hartzeko epea, eta bozkatzekoa, aldiz, 3tik 9ra, bi egunak barne www.txintxarri.eus webgunean. Ohar garrantzitsua: gailu bakoitzetik bozka bakarra eman ahalko du irakurle bakoitzak.

Argazki originalak

Partaide bakoitzak argazki bat aurkeztu beharko du lehiaketara, eta originala izan beharko du, alegia, norberak ateratakoa. Horizontala edo bertikala izan daiteke, koloretan edo zuri-beltzean, indibiduala edo taldean ateratakoa.

Dominak, Espainiako zein Gipuzkoako txapelketetan

Ostadar Atletismoa saileko kideak 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan eta Adin Txikikoen Gipuzkoako Txapelketan lehiatu dira; azken horretan, BAT taldean dagoen Unax Goenaga herritarrak ere parte hartu eta brontzezko domina eskuratu du 800 metroko lasterketan

Txintxarri

Otsailaren 19an eta 20an Salamancan lehiatu zen 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan aritu zen Naroa Furundarena herritarra. Ostadar Atletismoa saileko kideak jauzi hirukoitzean eta luzera-jauzian parte hartu zuen eta lehen proban zilarrezko domina eskuratu zuen. Playa de Castellon taldeko Tessy Eboles gasteiztarrek lehen jauzian egindako 13,53 metroko marka gainditzea zaila izan zen Furundarenarentzat, eta 12,75 metroko jauzia eginez, podiumeko bigarren mailara igo zen.

Luzera-jauziko lehiari aurreko eguneko esfortzua nabaritu, eta 5,65 metroko marka egin zuen; zazpigarren postuan sailkatuz. Atletismo saileko arduradun Oscar Goikoetxeak nabarmendu duenez, azken urteetako jardunari esker, Espainiar Estatuko elitean dago Furundarena. Jauzi hirukoitzean egindako markari esker, Espainiako rankingeko 6. postuan dago herritarra.



Naroa Furundarena (ezkerrean), jauzi hirukoitzeko podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

Horren erakusle da, gainera, hilaren 25etik 27ra Ourensean antolatu den maila absolutuko Espainiako Txapelketan lehiatuko dela.

Gazteak ere fin

Anoetako Antonio Elorza belodromoan, berriz, Adin Txikikoen Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen, hilaren 19an. Adin zein proba ugaritako

podiumetara herritarrak igo ziren.

16 urtez azpiko mailan Ostadar Atletismoko Aitor Eizaguirre eta Oinatz Almagrok lortu zituzten dominak. Eizaguirrek pisuko proba irabazi zuen 8,62 metroko jaurtiketarekin; Almagro, berriz, bigarren izan zen jauzi hirukoitzean (10,54 m.) eta hirugarren luzera-jauzian (4,88 m.).

Gomez Margallo, hirugarren

Hilaren 20an, Lasarte-Oriako korrikalariak errepidean zein mendian lehiatzeko aukera izan zuten. Euriari eta lokatzari aurre egin behar izan zioten probak amaitzeko.

Irungo Maratoi erdia eta 10 kilometroetako proban hainbat herritarrek parte hartu zuten. Proba motzean, gainera, Raul Gomez Margallo podiumera igo zen. Hirugarren igo zuen helmuga herritarrak (33.40); Unai Arroyo garaileak, berriz, probako errekorra egin zuen, 30.34.

Apuko igoeran eta Lezo-Jaizkibel mendi-lasterketan ere izan ziren herritarrak zein herriko Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideak.

Lezo-Jaizkibel mendi lasterketan hamalau kilometroko lasterketa egin zuten parte hartzaileak. Herritarren artean, Jon Huici izan zen helmugara iristen lehena (1.16.06).

Zaramillon (Bizkaia) antolatu zen Apuko igoeran LOTMEko bost kidek 23,2 kilometro eta 1.200 metro baino gehiagoko desnibel positiboko ibilbidea egin zuten. Guztien artean azkarrena Ritxard Marcos izan zen, 2.15.54.



Gomez Margallo, lasterka. J. ZATARAIN

Talde urdin-beltzeko kide Alex Alkain 18 urtez azpiko 60 m. lasterketako hirugarren mailara igo zen. 7,35eko marka egin zuen gazteak.

Bestalde, 20 urtez azpiko probetan, Ostadarreko Eneko Andonegik eta Nahia Surutusak zilarrezko domina jantzi zuten pisu-jaurtiketa proban. 7,86 metroko jaurteketaekin lortu zuten biek podiumera igotzea.

Azkenik, BAT taldean dagoen Unax Goenaga herritarrak hirugarren postua eskuratu zuen 800 metroko lasterketan 2.06,25eko marka eginez.

Hilaren 26an, larunbaterekin, beste aukera bat izango dute atleta gazteek euren denborak hobetzeko. Donostiako Antonio Elortza Belodromoan bertan euren mailako Euskadiko Txapelketa egingo da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
GORENGOEN MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Iliintxa SD Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Landetxa KT Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Beasain SD - Ostadar SKT Larunbata. 19:00. Loinaz, Beasainen.
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ostadar SKT - Eibar SAD Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO INFANTIL MAILA
Ostadar SKT - Danena KE Igandea. 11:20. Michelin kirol gunean.
INFANTIL TXIKI, PARTE HARTZEA
Aizkorri Goierri FT - Ostadar SKT Larunbata. 10:00. Alustiza, Seguran.

INFANTIL 1. MAILA, TXAPELDUN F.
Texas Lasarteerra - Zestoa KB Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA, KOPA
Usurbil Udarrégi FT B - Ostadar SKT A Larunbata. 09:00. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT B - Arrupe Chaminade CD B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
SASKIBALOIA
JUNIOR ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - BKL Esparru Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL HAUNDI
TAKE Uzturre - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Usabal kir., Tolosan.
PILOTA
KADETEAK 2. MAILA - TRINKETEA
Hernani - Intza Igandea. 10:30. Ametsa trinketea, Iruran.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA

Vithas Gaztedi RT - Gesalaga Okelan Zarautz RT Igandea. 11:30. Gamarra, Gasteizen.
XAKEA
3. MAILA
Lasarte-Oriako Taula Xake Klubak taldekako Gipuzkoako Txapelketako jardunaldia du. Santikutz C izango du aukari. Larunbata.
TENISA
ALEBIN TXAPELKETA
LOKEko tenis jokalariek gazteak Alebin mailako banakako Gipuzkoako txapelketa jolasten ari dira. Larunbata. Mons kiroldegia.
TALDEKAKO TXAPELKETA
LOKEko tenis jokalariek gazteak taldekako Gipuzkoako txapelketari hasiera emango diote Larunbata. Mons kiroldegia.
IGERIKETA
KIROL ZEHAZTASUN LIGA

Buruntzaldea IKTo benjaminen Kirol Zehaztasun Ligako 3. jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. 16:00. Majori kir., Ordizian.
TXIRRINDULARITZA
ZUMAIAKO SARIA
Eibar Txirrindulari Taldearen kide Ander Altunak eta Asier Pozok zein Caja Rural-Alea taldearen kide Beñat Carbayadak errepideko denboraldiari hasiera emango diote Zumaia XIV Sarian. Euskaldun Trofeoeko lehen jardunaldia izango da. Larunbata. 10:00. Zumaian.
UDABERRI SARIA
Herriko junior mailako txirrindulariek errepideko denboraldiari hasiera emango diote XLIV. Udaberri Sarian. Igandea. 10:00. Eibarren.
ATLETISMOA
ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ostadar atletismo saileko Naroa Furundarenak Espainiako txapelketan parte hartuko du. Bi probatan lehiatuko da herritarra luzera-jauzian eta jauzi hirukoitzean. Larunbata eta igandea. Ourense.
EUSKADIKO TXAPELKETA
Ostadar atletismo saileko zein herrko 20, 18 eta 16 urtez azpiko atletek Euskadiko Txapelketa lehiatuko dute. Larunbata. Antonio Elortza bel., Donostian.
Lasarte-Oriako kirolaria edo kirol elkarte bazarra eta zure jarduerak TXINTXARRI-ko agendan agertzea nahi baduzu jarri harremanetan gurekin: 688 82 44 66 (WhatsApp) edo txintxarri@ttakun.eus.

"Pixkanaka erritmoa hartuko dudala uste dut"

ANDER ALTUNA MAEZTU EIBAR TXIRRINDULARI TALDEKO KIDEA

Lasarte-Oriako txirrindulari gazteak ziklo-kros eta pista probak egin ditu azarotik urtarrilera; orain, errepide denboraldiari hasiera emango dio Zumaiako sarian

Nerea Eizagirre

Euskadiko egutegiko errepide denboraldia hilaren 26an hasiko da. Hainbat herritarrek junior mailatik amateur mailara egin dute jauzia. Horietako bat dugu Ander Altuna Maeztu (Lasarte-Oria, 2003). Viveros San Anton taldea utzi eta aurten Eibar Txirrindulari taldean ari da lehian. Irailera arteko errepide denboraldi luzea prestatzeko, ziklo-krosean eta pistan lehiatu da.

Zergatik aukeratu duzu Eibar Txirrindulari taldea amateur mailan lehiatzeko?

Orain arte, jubeniletik amateur mailarako jauzia egitean Gipuzkoako talde batera joatea derrigorrezkoa zen. Aurten lege hori aldatu dute. Baina nik aurretik pentsatua nuen Gipuzkoako talde batean geratzeko.

Oraintxe bertan, maila horretako talde gutxi daude Gipuzkoan, eta etxetik gertu zegoenetako batean jarraitzea nuen buruan.

Aurten, gainera, jende asko ginen jauzia egiteko. Iaz COVID-19a zela eta, ez zen lasterketa askorik jokatu eta gure mailako zein 23 urtez azpiko batzuek ez ziren mailaz aldatu.

Alabaina, Eibar Txirrindulari taldekoek aukera eman zidaten eta nik baiezkoa eman nuen.

Ez zenuen denbora askorik izan atsederako, ezta?

Talde batetik besterako jauzia azkarra izan zen eta, besteak beste, entrenamenduetara moldatzeko denbora gutxi izan nuen lasterka hasi baino lehen. Hau da, irailean junior mailako txapelketak amaitu ziren, eta orduan hasi ginen hizketan Eibar Txirrindulari Taldearekin; azaroan, berriz, ziklo-krosean ari nintzen.

Nola moldatu zara maila berrira?

Orain arte ziklo-krosa eta pista lehiatu ditut. Nire mailako jende asko egon da txapelketa horietan eta ondo joan da, baina ziklo-



Ander Altuna, Eibar Txirrindulari Taldeko kideekin entrenatzen. UXUE GARMENDIA

krosean ohitua nengoen lehen postuetan egotera. Orain, 23 urtez azpiko zein eliteko txirrindulariak batera egiten dugu lasterka; hau da, nazioartean lehiatzen den jendearen aurka egiten duzu lasterka, Munduko Kopan lehiatzen direnekin. Onartu behar dut Espainiako txapeldun baten aurka lasterka egitea zaila izan dela.

Ez da ohikoa txirrindulari batek errepide denboraldia prestatzeko pista eta ziklo-krosa egitea...

Ez, ez da ohikoa. Nire kasuan, txikitatik, kadete mailatik ari naiz ziklo-krosean.

Orain arte denboraldi osoa egiten nuen, baina aurten moztu egin dut. Amateur mailako sasoi luzea da eta taldeko prestatzailearekin egutegia aztertutu nuen. Errepidera

"ZIKLO-KROSEAN ESPAINIAKO TXAPELDUN BATEN AURKA LEHIATZEA ZAILA IZAN DA"

begira, ziklo-kros lasterketa gutxiago egitea erabaki genuen, denboraldia gehiegi ez luzatzeko. **Horregatik, hiru probatan bakarrik parte hartu duzu.**

Bai, hori da. Amurrión, Elorrión eta Abadiñon lehiatu nintzen.

Abadiño eta Amurriokoak Euskadi mailako lasterketak izan ziren. Abadiñoko ibilbidea lakarra zen, eta nahiko gogorra egin zitzaidan. Amurriokoan, aldiz, hamahirugarren egin nuen. Erritmo ona hartu nuen, eta pozik nago egindako lanarekin.

Elorriokoa, ordea, nazioarteko proba zen, eta hor gaizki ibili nintzen. Espainiako txapeldunak parte hartu zuen, Felipe Orts-ek, eta hirutan gaingitu ninduen. Beraz, kanporatu egin ninduten. **Eta pistako denboraldia nola joan da?**

Taldeak eskaini zidan pista egiteko aukera. Gipuzkoako Sariko hiru jardunaldi jokatu ziren, kanporaketako proba eta beste bi, eta nik bakarrean parte hartu nuen.



Telmo Semperena eta Asier Pozo (eskuinean). EIBAR TXIRRINDULARI TALDEA

Pozo, Madison proban laugarren

Hilaren 19an eta 20an, Omnium eta Madison Espainiako txapelketak jokatu ziren Palma Mallorcako Iles Balears belodromoan. Bertan Eibar Txirrindulari taldeko Asier Pozo herritarra izan zen lehian, 23 urtez azpiko mailan. Madison proban lortu zuen emaitzarik onena, laugarren postua, taldekide Telmo Semperenarekin batera. Brontzezko domina eskuan izan zuen bikoteak lasterketako azken bi itzuliak baino lehen. Alabaina, elite mailako Martorell- Palladares bikoteak kendu ziren podiumera igotzeko aukera.

Egun bat lehenago, hilaren 19an, Omnium modalitateko probetan –scratch, tempo, kanporaketa eta puntuazioa– parte hartu zuen herritarrek, eta sailkapen orokorrean hamaseigarren izan zen. Scratch proban itzuli bat galdu eta 21. postua eskuratu zuen. Eguneko bigarren saioan, *Tempo* izenekoan, erorikoa izan zuen herritarrek eta sailkapeneko azkeneko postuan jarri zen. Kanporaketa eta puntuazio probetan, berriz, hemezortzigarren eta hogeigarren izanik postuak igotzea lortu zuen.

Nik ez dut pista asko egin eta ez nekien ondo gauza nola zihoan, baina moldatu nintzen, eta azkenean, ondo joan zen.

Euskadiko errepide denboraldia hasiko duzue aurki. Nola ikusten duzu taldea? Zeintzuk izango dira helburuak?

Oso ondo ikusten dut. Astebururo elkartzen gara entrenatzeko. Elkar ezagutu eta gure arteko harremana sendotzeko primerakoa da. Talde polita dugu.

Normalean, Gipuzkoako eta Euskadiko lasterketetan parte hartzen dugu, baita Euskadin lehiatzen diren Espainiako kopako probetan ere –Aiztondo, Balenciaga eta Legazpiko Santikutz Klasika–. Azken horiek izango lirarteke Eibar

"HELBURUA PROBA GARRANTZITSUETAKO BATEAN PARTE HARTU ETA NIRE ONENA EMATEA DA"

Txirrindulari taldearen helburu nagusiak.

Eta zuri dagokizunez?

Niri forma hartzea kostako zait oraindik. Otsailean gaude, eta denboraldia luzea da. Horregatik, uste dut lehen lasterketetan kostatzen egingo zaidala, baina pixkanaka-pixkanaka erritmoa hartuko dudala.

Denboraldi erdialderako fin egon nahiko nuke, sasoiak: proba garrantzitsuetako batean lehiatu eta nire onena ematea da helburua. **Lehen urtea duzu amateur mailan, baina profesional mailarako jauzian pentsatu al duzu?**

Amateur mailan gauden txirrindulari guztien helburua da profesionalak izatea.

Aipatu duzun moduan, aurten nire lehen urtea, da eta mailara moldatzearekin nahikoa dut, baina bigarren eta hirugarren urteetan ikusiko dut ea nola nagoen: denboraldiak nola joan diren aztertu, eta erabakiko dut zer egin, jarraitu edo ez. Ea zer gertatzen den.

Futbol taldeak, fase berriei ekiteko prest

Ostadar SKT zein Texas Lasartearra elkarteetako sei taldek fase berriak hasiko dituzte: Igoera, Txapeldunena, Maila mantentzekoa edo Kopa; Ostadarreko Ohorezko Infantilak, berriz, lehen faseko azken jardunaldia jokatu du

Txintxarri

Futbol denboraldia aurrera doa, eta hurrengo jardunaldian, Ostadar SKTko zein Texas Lasartearrako zazpi taldek fasez aldatuko dute: Igoera, Txapeldunena, Maila mantentzekoa edo Kopa.

Ostadar SKTko Gorengoen Mailako taldeak, esate baterako, Igoera fasea jokatu du. Hilaren 19an, neurketako azken minutuetan lortu zuen helburua Raul Rodriguezek eta Unai Iribarrek zuzentzen duen taldeak: 2-1 irabazi zuen Danena KEren aurka. Kosta ala kosta irabaztea buruan zutela zelairatu ziren urdin-beltzak, eta berehala aurrea hartu zuten, Julen Lopezen gol bati esker.

Markagailuko aldea handitzeko abagune ugari sortu zituzten etxeok, baina kamuts aritu ziren atearen aurrean, eta nahi baino gehiago sufritu behar izan zuten: partida amaitzeko bost minuturen faltan, banakoa sartu



Ostadar SKTko jokalaria Renzo Osorio gutxiatik ez zen jaurtitzera iritsi. TXINTXARRI

zuten zizurkildarrek. Kolpe latza izan arren, hiru puntuen bila jarraitu zuten urdin-beltzek, eta merezitako saria erdietsi, luzapena hastear zela: partidako bigarren gola sartu zuen Julen Lopez aurrelariak. Horri esker,

igoera fasea jokatzeko sailkatu da Ostadar.

Taldeak ez du atsedenerako astirik izango. Hilaren 26an, hasiko da kategoriaz igotzeko borroka, eta lehen arerioa Ilintxa SD izango da. Michelin kirol

gunean neurtuko dituzte indarrak biek, 15:30etik aurrera.

Ohorezko maila buruan

Txapelketa aldatetarekin batera, taldearen xedea ere moldatuko da. Orain, Ohorezko Erregional Mailara itzultzeko egingo dute lan. Helburua betetzeko, bere multzoko lehen bi postuetako batean sailkatzeaz gain, finalera iritsi beharko da Ostadar SKT.

Talde urdin-beltza igoera faseko lehen multzoan lehiatuko da. Ilintxa SD taldeaz gain, Roteta SD, Universidad de Deusto, Vasconia CD eta Zumaiako FT taldeen aurka jokatu beharko du, sailkapeneko buruan egoteko. Azken horren aurka soilik jokatu du aurtan.

Derbia, zuri-urdina

Infantil I. Mailako taldeek ere atzean utzi dute denboraldi arrunta, eta erronka berriei ekingo diete. Kategoria horretako Texas Lasartearrako Txapeldunen fasea jokatu du; Ostadar SKTko A eta B taldeek, berriz, Kopan parte hartuko dute.

Hilaren 19an jokatu zen azken jardunaldia. Michelin kirol gunera bertaratu ziren zaleek Ostadar B eta Texas Lasartearra taldeen arteko derbia ikusi ahal izan zuten. Hasi eta buka, zuri-urdinak izan ziren nagusi, eta hala islatu zuen markagailuak: 0-12 irabazi zuen orduko horretan kanpoko gisa jokatu zuenak.

Ostadar A taldeak, berriz, emaitza paregabea lortu zuen Andoainen: 0-6 garaitu zuen Euskalduna.

Mailari eutsi

Bestalde, talde urdin-beltzeko Ohorezko Mailako Jubencil zein Kadete taldeak mailari eusteko lehiatuko dira, maiatzera arte.

Jubenilek ederki amaitu zuten lehen fasea: Danena 1-3 garaitu zuten. Alabaina, sailkapeneko zortzigarren postuan amaitu dute lehia.

Kadeteek, berriz, 2-0 galdu zuten Real Sociedad taldearen aurka, eta zazpigarren izan dira euren multzoan.

Maila horietan, multzoko lehen lau sailkatuek bakarrik jokatu dute igoera; gainerako taldeek, Maila eusteko fasean ariko dira. Horietatik bederatzik ez dute lehiaketa gaintuko.

Parte Hartze txapelketa

Horietaz guztiez gain, bada hirugarren fase batean sartzen den talderik ere.

Ostadar SKTko Infantil Txikiak, bigarren faseko azken jardunaldian, 1-0 galdu zuten Ordiziaren aurka. Ondorioz, bere multzoko laugarren amaitu du eta Parte Hartze txapelketa jokatu dute.

Gainerakoek ez bezala, Ostadar SKTko Ohorezko Infantilak lehen fasean parte hartzen jarraitzen du; azken jardunaldia hilaren 27an jokatu du.

Errugbi barneratzaile partida, lehenengoz, Michelin kirol gunean

Gabriel Gavilan herritarrak Gesalaga Okelan Zarautz Ohorezko B Mailako taldean debuta egin du

Txintxarri

Bultza Ligako neurketa zirrargarri bat jokatu zen lehenengoz, hilaren 20an, Michelin kirol gunean. Hernani CRE eta Universitario de Bilbao talde barneratzaileek elkarren aurka jokatu zuten. Euriari aurre eginez, errugbiar gozatzera atera ziren biak.

Baloia eskuetan mantentzeko arazoak izan zituzten hasieran. Alabaina, egoerari aurre egin, eta lehen zati orekatua izan zen.

Bigarrenaren hasieran, bizkaitarrek ezarri zuten

erritmoa. Hernaniarrek, ordea, ez zuten amore eman, eta defentsaren lan eder bati esker, aurre egin zieten bi entsegurekin. Partida amaitu baino lehen, Unibertsitariok azken entsegua egin zuten.

Oroigarri bat, eskertza modura

Neurketa amaitzean, hirugarren denboraz gozatu zuten guztiek. Bertan, Hernani CREko lehendakari Joxe Kurutz Elosegik Beltzak Errugbi taldeko beteteranoen presidente Juankar Ciriari oroigarri bat eman zion,

eskertza modura. Hernaniko Landare zelaia oraindik ez dago erabilgarri, eta Beltzak RT taldeak bere laguntza eskaini zion ondoko herriari, neurketa jokatu ahal izateko.

Aurpegia eta gurutzea

Bestalde, Hernani CREren aurkako bi norgehiagoka jokatu zituzten Gesalaga Okelan Zarautzen taldeek, eta emaitzak ezberdinak izan ziren.

Hilaren 20an, 16 urtez azpiko neurketa izan zen Michelin kirol gunean. Bertan, beltzak nagusi izan ziren, eta 0-53 irabazi zuten, nagusitasunez.

Astin, berriz, Ohorezko B mailako taldeak 19-11 galdu zuen. Atsedenaldira 0-11 irabazten joan arren, Hernaniko taldeak neurketari itzulita eman eta partida eskuratu zuen.



Bultza Ligako Hernani-Universitario de Bilbao partidako irudia. TXINTXARRI

Partida horretan Ander eta Xabier Rekondo anaiak hasierako hamabostekoan atera ziren zelaira. Gainera, Beltzak RTko Gabriel Gavilan Gavi-k estreinakoz jokatu zuen Ohorezko Mailako taldearekin.

Bestalde, Jon Ibisate herritarrak Nazional mailako epaile azterketa gaintu du. Horri esker, Ohorezko B Mailako (2. maila nazionala) zein 23 urtez azpiko ligetako partidak epaitu ahalko ditu.

Infantilek, brontzezko domina eta gutxienekoak

Buruntzaldea IKTKo kideek bi hitzordu garrantzitsu izan dituzte. Infantil Mailako Euskal Herriko Neguko Txapelketan hiru igerilari izan dira lehian eta emaitza ederrak lortu dituzte; Nahia Zudaire, berriz, British WPS World Series proban lehiatu da

Txintxarri

Hilaren 19an eta 20an, Buruntzaldea IKTKo Iker Gorostegui, Jurgi Sukunza eta Miren Sarobe Infantil Mailako Euskal Herriko Neguko Txapelketan lehiatu ziren Tolosako Usabal igerilekuan. Hiruek euren marka pertsonalak hobetzeaz gain, domina bat eta Euskal Herriko Udako Txapelketarako gutxienekoak sartu zituzten neguko denboraldiko poltsan.

Iker Gorostegui 100 metroko lau estiloen proban igo zen podiumera; 1.10,92 egin, eta brontzezko domina jantzi zuen, baita bere marka pertsonala hobetu ere. Beste bi alditan ere lehiatu zen, 100 m. libre (1.00,73) eta 400 m. lau estiloetan, eta markak ondu zituen. Estilo librean, gainera, 50 metroko pasean, bere marka hautsi (29,94), eta Euskal Herriko Udako Txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Tamalez, lau estiloen proba luzean deskalifikatua izan zen eta ezin izan zuen podiumera igo. "Egindako markarekin hirugarren postua lortuko zukeen", azaldu dute Buruntzaldea IKTKo arduradunek.



I. Gorostegui (dominarekin), A. Sarobe eta J. Sukunza igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Jurgi Sukunzak estilo libreko hiru igerialdi burutu zituen (800 m., 100 m. eta 200 m.). Distantzia motzetan, txapelketa aurreko markak gainditu zituen: 100 m. proban, 1.00,38 eta 200 m. proban, aldiz, 2.13,33.

Azken lehiaketa horretan, gainera, Euskal Herriko Udako Txapelketako gutxienekoa lortu zuen eta dagoeneko bost probatan parte hartuko du igerilari gazteak, udako hitzordu garrantzitsuetako batean: 100 m., 200 m., 400 m., 800 m. eta 1500 m. libre probak.

Miren Sarobek 100 m. eta 200 m. lau estiloetan eta 200 m. librean egin zuen igeri.

200 metroko bi probetan bere markak ontzeaz gain, udako txapelketarako txartelak eskuratu zituen. Lau estilo saioan 2.45,48 eginez, ia zazpi segundo hobetu zuen marka eta estilo librekoan, berriz, bost segundo azkarrago izan zen, 2.22,72.

Zortzigarren postua

Taldekode Nahia Zudaire, ordea, Espainiako selekzioarekin British WPS World Series proban lehiatuko zen. Sei probatan parte hartu zuen igerilari gazteak eta 400 m. librean lortu zuen emaitzarik onena, zortzigarren postua.



Ostadarren jokalaria, blokeo bat egiten. TXINTXARRI

Maila ezberdintasuna agerian, Euskal Ligako partidan

Ostadar Boleibola saileko senior taldeak sailkapeneko buru Universidad de Deustoren aurka jokatu du

Txintxarri

Euskal Ligako 2. Mailako Ostadarrek partida zaila jokatu zuen hilaren 19an. Aurrez aurre sailkapeneko lehen postuan den Universidad de Deusto Madre de Dios taldea izan zuen Maialen Chourraut kiroldegian; urdin-beltzek ezin izan zuten ezer egin bilbotarren aurka.

Hasieratik bere nagusitasuna erakutsi zuen Deustuko taldeak. Sakeen bitartez min handia egin zion etxeko taldeari, eta baloiarekin jokoan ere teknikoki hobek zirela erakutsi zuten. Ondorioz, hiru setak irabazi zituen aurkariak (7-25; 8-25 eta 13-25).

Asier Acuriola prestatzaileak onartu bezala, "neurketan argi geratu zen bi taldeek maila ezberdina dugula". Hirugarren setean Ostadarrek egindako lana

ere nabarmendu du: "Bost minutu izan ziren, baina horietan nahi genuen bezala jokatu ahal izan genuen. Defentsan ere, blokeoari esker aurre egiteko gai izan ginen, baina ameskeria hutsa izan zen".

Otsaileko azken asteburuan Ostadarrek atsedena izango du, eta ondoren, lehiaketako azken hiru jardunaldiei aurre egin beharko die, baita atzeratutako partida bati ere.

Beste garaipen bat

Harrobiko taldeei dagokienez, kadete mailako taldeak irabazi egin zuen. Lizardi 1 taldea izan zuen aurkari, eta 2-3 irabazi zuten urdin-beltzek.

Jubenilek, ordea, ez zuten neurketarik izan, Aldapeta Maria Bren aurkako partida atzeratu egin baitzuten.

LOKEko gimnastak, Eskolarteko txapelketako lehen postuetan

Maialen Aranzabe eta Maitane Sarmiento Infantil B mailako lehen eta bigarren sailkatu dira; taldea zazpigarren izan da

Txintxarri

Eskolarteko mailako gimnastek ez zuten txapelketarik izan 2021ean. Tapizean lehiatzeko gogoz zeuden Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak eta azkenik, hilaren 19an eta 20an bi hitzordutan bildu –Benjamin topaketa eta Eskolarteko A eta B mailako

txapelketa–, eta euren dohainak erakutsi ahal izan dituzte.

Eskolarteko A eta B mailako txapelketa lehiatu zen hilaren 20an Donostiako Carmelo Balda kiroldegian. Infantil B mailako lehiaketan –uztaiarekin egindako lanak– lehen postuetan izan ziren LOKEko ordezkariak eta

horregatik, taldeko arduradunak pozarren daude gimnastek egindako lanarekin.

Banakako txapelketan LOKEko bi kide izan ziren sailkapeneko buruan. Maialen Aranzabek lehen postua eskuratu zuen eta Maitane Sarmientok, berriz, bigarrena.

LOKEren arduradunek azaldu digutenez, "Aranzabek bikotea osatzen du Ane Lopezekin batera. Beraz, ez du bigarren fasean parte hartuko. Horretan, Lopezek pilotarekin egingo du lan".

Infantil B mailako taldea ere lehiatu zen txapelketan. "Kideetako bat lesionatua zegoen eta azken



Maialen Aranzabe, uztaiarekin. LOKE

GINNASTIKA

momentura arte ez genuen jakin lehiatu ahalko ziren edo ez", onartu dute arduradunak. Arazoa gaindituta, zazpigarren postua eskuratu zuen taldeak.


Otsailaren 19an, berriz, Benjamien topaketa izan zen Hernanin. LOKEk entrenatzen dituen Landaberri 1, Landaberri 2 eta Ekintza taldeek parte hartu zuten. Banaka ere ordezkari bat izan zen, Sara Rodriguez, Ekintza ikastolaren izenean.

Taldeko entrenatzailek jakitera eman dutenez, euren zein gurasoek ederki gozatu zuten gimnasta gazteek egindako lanarekin.

KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Aimar
Zorionak Aimar! Ondo pasa zure egunean eta 8 muxu potolo etxekoan partetik



Udane
ZORIONAK maitia!! 6 muxu potolo etxekoan partez. Maite zaitugu!



Urko
Zorionak Pottoko!! Beste urte bat bete dezuz poz-pozik. Jarraitu horrela etxeko guztiak alaitzen. Asko maite zaitugu. Muxu potoloak!!



Arkaitz
Zorionak ttantto! Txinoan denetarik dagoela dio abestiak... aurkituko al dugu zerbait zure ongietorri bazkaria apaintzeko? Ziur baietz! Prestatu Ttakuneta!



Jaio da!

Eman jaitzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaitze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 25	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 26	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 27	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 28	DE ORUE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 1	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 2	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 3	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

API Inmolasarte
Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!
943-53 64 81 | 629 63 18 38
Iñigo de Loiola, 2 behea.
LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

SALDU

Garaje itxia saltzen dut, Zumaburuko Liberto eraikinean. 25 metro koadro ditu (5x5 metro) eta bi kotxerentzako lekua. Prezioa: 22.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 630 80 48 34.

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukalde eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINTZA
Etxeko lanak egin eta bi pertsona adindu zaintzeko pertsona behar da. Interesdunek mendekotasuna duten adineko pertsonen arreta soziosanitarioan lanbide-

prestakuntza izan behar dute. Salbuespenezko edo aldi bateko gaikuntzak ere balio du. Kontratua, nomina eta Gizarte Segurantzaren alta ematea eskaintzen da.

Harremanetarako zenbakia: 656 41 15 10
ESKARIA
Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastarora egina dut.

Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.
Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke.

Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.
Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara.

Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauean edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU
Eskiak eta helduentzako botak saltzen ditut. Interesa duenak deizala 605 70 57 89 zenbakira.

Etxe aldaketa dela eta, zenbait altzari saltzen ditugu: bi plazako larruzko sofa, gorri ilun kolorekoa, egoera onean eta merke (300 euro); eta egongelarako altzari dotorea, estilo klasikoak, oso egoera onean (400 euro). Interesa dutenei argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 616 83 11 52.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako

eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia: 697 45 97 96.

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Liemii Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN



LASARTE-ORIA Inauteriak. Otsailari mozarrotuta esango dio agur Lasarte-Oriak. Buruari astindu eta bakoitzak buruan duena jantzitara ekarriko du, baina azken orduan oraindik zalantzak dabilzanentzat, hona bi aukera: Indioak eta bakeroak gaia proposatu du udalak, konpartsekin adostuta; Sorgin Jaiak-ek, berriz, lanbideak proposatu ditu, gai ofiziala "arrazista eta kolonialista" dela iritzita. Hilaren 26an lehertuko da festa, eta 27an jarraituko du, Ttakun Kultur Elkarteak orduan ospatuko baititu Euskal Inauteriak, kalejira batekin. Otsailaren 25etik 27ra, herrian zehar.

OSTIRALA 25

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Ttakun Kultur Elkarteak Talent Show egitasmoa prestatu du gazteentzat, Inauteriak ospatzeko.

18:00etan, LH 3. eta 4. mailakoak, Garaiakoetxea-Landaberrin.

18:00etan, LH 5. eta 6. mailakoak, Gaztelekuan. 19:00etan hasiko dira DBH 1. eta 2. mailakoak. Herrian zehar, 18:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Ekintza

SEAD errepublikaren 46. urteurrenaren harira, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak autokarabana solidarioa antolatu du. Hipodromoko aparkalekua, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren proiektzioa egingo du: *No somos nada* dokumentala emango du. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona, 20:30ean.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Sara Etxeberria Zapirain *Basoko Maxuxta* artista lasarteoriatarrek *Bideak* izeneko erakusketa jarri du Agora tabernan, hiru bat hilabetez. Agora taberna, Kale Nagusia 8, egun osoan zehar.

LARUNBATA 26

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasarte-Oriak 2022ko Inauteriak ospatuko ditu, giro ederrean. Hauxe da udalak prestatu duen egitaraua:

12:00etan, konpartsen ikuskizunak kultur etxeko auditorioan.

13:00etatik 14:30era, Gautxori txarangak herria girotuko du. Kultur etxetik abiatuko da.

17:00etatik 20:00etara, Gautxori txarangak herria girotuko du.

22:00etatik 01:00era, DJ batek gaua girotuko du Andatza plazan.

Herrian barrena, egun osoan zehar.

IGANDEA 27

LASARTE-ORIA Musika

Ska, Reggae, Soul, Rhythm & Blues eta bestelako doinuak jarriko dituzte bi DJk Oreka tabernan, goizeko lauak arte, Inauteriak ospatzeko. Oreka taberna, 00:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin elkarlanean, Euskal Inauteriak ospatuko ditu. Kalejira bat egingo du, eta gune hauetan geratu: Sagardotegi kalea, Juan XXIII plaza, Isla Plaza eta Elizatze plaza. Sagardotegi kalea, 11:30ean.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Andaluziaren Eguna ospatuko du Semblante Andaluz elkarteak.

11:00etan, meza Arantzazuko Ama parrokian. Semblante Rociero koruak emanalditoxa egingo du.

14:30ean, bazkideen bazkaria Semblante Andaluzen egoitza.

17:30ean, flamenko emanaldia Katak taldearen eskutik, egoitza.

Herrian barrena, egun osoan zehar.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

SEAD errepublikaren 46. urteurrenaren harira, SELO taldeak elkarretaratzea egingo du. Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Spider-Man: No Way Home filma proiektatuko dute, bi aldiz, haurrentzat zein helduentzat. Sarrerek 4 eta 6 euro balio dute, hurrenez hurren.

Manuel Lekuona, 17:00etan eta 19:30ean.

ASTEARTEA 1

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ni naiz Idoia argazki erakusketa jarriko du ikusgai Idoia Telleria argazkilariak, martxoaren 18ra arte. Antonio Mercero gunea,

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'No somos nada'
Ostirala 25
20:30.

'Spider-Man: No Way Home'
Igandea 27
17:00, 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Uncharted'
Larunbata 26
17:00.

'Uncharted'
Igandea 27
17:00.

'Belfast'
Larunbata 26
19:30, 22:00.

'Igandea 27'
19:30.

Astelehena 28
19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

'Uncharted'
Ostirala 25
16:30, 18:15,
19:20, 21:05,
22:10.

'Larunbata 26'
12:05, 16:30,
18:15, 19:20,
21:05, 22:10.

'Igandea 27'
12:05, 16:30,
18:15, 19:20,
21:05, 22:10.

'Death on the Nile'
Ostirala 25
16:05, 19:05,
22:05.

'Larunbata 26'
12:15, 16:05,
19:05, 22:05.

'Igandea 27'
12:15, 16:05,
19:05, 22:05.

'Marry me'

Ostirala 25
21:45.

'Larunbata 26'
21:45.

'Igandea 27'
21:45.

'Competencia oficial'
Ostirala 25
16:05, 19:00,
21:50.

'Larunbata 26'
16:05, 19:00,
21:50.

'Igandea 27'
16:05, 19:00,
21:50.

'Superwho?'
Ostirala 25
15:55, 18:40,
20:50.

'Larunbata 26'
15:55, 18:40,
20:50.

Igandea 27

15:55, 18:40,
20:50.

'Sing 2'

Ostirala 25

15:50, 18:10.

'Larunbata 26'

12:10, 15:50,
18:10.

'Igandea 27'

12:10, 15:50,
18:10.

'La abuela'

Ostirala 25

22:15.

'Larunbata 26'

22:15.

'Igandea 27'

22:15.

'King Richard'

Ostirala 25

20:55.

'Larunbata 26'

20:55.

'Igandea 27'

20:55.

'Igandea 27'

20:55.



LABURPENA

'No somos nada'

Zuzendaria: Javier Corcuera. **Gidoia:** Javier Corcuera, Manuel Viqueira. **Argazkia:** Mariano Agudo. **ekoizleak:** Tamboura Films, La Mula Producciones, Intermedia Producciones, Instituto del Cine de Madrid, Altababana Films, Quechua Films, La Cara A. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Iraupena:** 100 minutu. **Generoa:** Dokumentala, musika. **Aktoreak:** Evaristo Paramos.

Lau hamarkada, 100 minututan

Euskal Herriko punk talde historiko bati buruzko dokumentala proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak otsailaren 25ean: *No somos nada* izena du, La Polla Records-en abesti ezagunenetako batek bezala. Evaristo Paramos abeslariaren lekukotzatik abiatuta, eta taldeak urtez urte eman zituen kontzertuetako irudiekin

jantzita, milaka pertsonarentzat erreferente bilakatu ziren horien ibilbidea erreparatu du Javier Corcuera.

La Polla Recordsek iragarri du azken bira bat egingo duela, eszenatokiak behin betiko utzi aurretik. Hori ardatz hartuta, punk talde horren historia kontatzen du dokumentalak: lau hamarkada, 100 minututan



HARTU
HITZORDUA!!!

Ate Irekiak

Martxoak 9



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
CIFP USURBIL LHII

943-36 46 00
adkomunikazioa@lhusurbil.eus



Erdi Maila: 17:00
Goi Maila: 18:00

www.lhusurbil.eus



txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

“PUBLIZITATEA DA INBERTSIORIK ONENA”

HORREGATIK... **DESKONTU BEREZIAK** DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



PROPOSATU IKASTARO BAT!

Euskarazko kultur jarduerak prestatzen gabiltza

Bete eskuorria zure proposamenarekin
otsailaren 28a arte

Non eskura dezakezu eskuorria?
**Ttakunen, Ttakunenean, udaleko Euskara
zerbitzuan, Manuel Lekuona Kultur Etxean,
Udal Euskaltegian, Muntteri-AEK euskaltegian eta
Jalgi kafe antzokian**

Ekarri zure ekarpenak **Ttakunera**

Proposamena sarean egiteko sartu QR kodea sakeleko telefonoan



KULTURGINTZA EUSKARAREN ESKUTIK

TTAKUN KULTUR ELKARTEA LASARTE-ORIA LASARTE-ORIAKO UDALA